# AGOIZKO Jaiak

ABUZTUAREN 13TIK 17RA

2022

DEL 13 AL 17 DE AGOSTO

# Fiestas de AOIZ



programa de fiestas 2022*ko jaietako egitaraua*

# AOIZ AGOITZ















EDITA_*ARGITARATZAILEA*
Ayuntamiento de Aoiz
*Agoizko Udala*

IMPRESIÓN_*INPRIMAKETA*
Imagraf

PORTADA_*AZALA*
Cartel Fiestas 2022
*2022ko Jaietako Kartel*
Garazi Labiano Burguete
Edurne Mañú Aristu

DISEÑO_*DISEINUA*
www.alfredoleon.com

FOTOGRAFÍAS_*ARGAZKIAK*
Elena Álvarez
Familia Beaumont-Jimeno
José María Jiménez
Fotografía Latasa
Juan Jesús Leache
Iñaki Vergara
El Aoiz de entonces
*Agoitz, iragana gogoan*

DL / LG NA 1690-2022

# saludo del alcalde

Mientras me pongo a escribir estas líneas, no puedo abstraerme de la complicada situación que hemos vivido durante estos más de dos años. La pandemia nos ha obligado a cancelar la celebración de festejos y actos de gran afluencia, pero volvemos, con inmensa ilusión, a retomar la celebración de nuestras fiestas.

A pesar de estos dos largos y duros años, esperamos que se siga manteniendo la esencia tradicional de nuestras queridas fiestas y que disfrutéis de estos días con la misma o mayor ilusión y sentimiento de unión y solidaridad que hemos demostrado como pueblo durante esta dura etapa. Aoiz una vez más ha estado a la altura mostrando una enorme responsabilidad. Y por ello, en nombre del Ayuntamiento, quiero agradeceros vuestro compromiso y solidaridad, y también enviar un fuerte abrazo de apoyo y cariño a quienes habéis perdido en estos años a seres queridos.

Por fin se acerca el momento tan deseado. Las fiestas ya están tocando a la puerta, y se palpa en el ambiente las ganas de celebrarlas como todos los agoiskos y agoiskas sabemos hacerlo.

Nos hemos esforzado en preparar un programa completo de actividades que complazcan a la gran mayoría y suplan, en la medida de lo posible, la ausencia de celebraciones en estos años. Os invito a que durante estos cinco intensos días participéis, os divirtáis, convivamos en armonía, volvamos a sociabilizar y disfrutemos, en definitiva, que seamos capaces de olvidar los problemas, que han sido muchos durante estos dos años y nos han afectado de diferentes maneras en nuestro día a día. Pero siempre desde el respeto y la igualdad. Debemos ser firmes y apostar por unas fiestas sanas y en armonía, y que en estos días festivos, así como durante todo el año, solo el SÍ es SÍ.



También deseo dar las gracias a todas aquellas personas y colectivos que de una manera u otra colaboran y trabajan para que estas fiestas se hagan realidad. Comerciantes, hostelería, grupos culturales, trabajadores y trabajadoras municipales... Sin duda, gracias a todos vosotros y vosotras, tenemos las mejores fiestas.

Y por último, deseo agradecer, una vez más, de forma pública la colaboración de todas las personas que han prestado su ayuda durante estos dos años. Personas que de manera totalmente altruista han estado aportando su entrega, disposición y solidaridad cuando la situación era muy complicada e incierta. Agradeceros de corazón a todos y todas vuestra responsabilidad durante estos años.

Gora Agoitz! Gora Agoizko Jaiak!

Ángel Martín Unzué Ayanz
*Alcalde de Aoiz*

# alkatearen agurra

Lerro hauek idazten hasten naizen bitartean, gogoan dut, nahitaez, bi urtetan zehar bizi dugun egoera korapilatsua. Pandemiak bertan behera utzarazi dizkigu jendetza biltzen ahal zituen ospakizunak eta ekitaldiak; baina, ilusio handiz, berriro ekin diogu gure jaiak ospatzeari.

Bi urte luze eta gogor bizi izanagatik ere, gure herriko festen izaerari eustea nahiko genuke, eta egun hauetaz gozatzea etapa gogor horretan herri gisa erakutsi dugun ilusio eta elkartasun-sentimendu berarekin edo, posiblea bada, handiagoarekin. Agoitzek, beste behin ere, maila eta erantzukizun handia erakutsi du; eta, horregatik, Udalaren izenean, eskerrak eman nahi dizkizuet, izan duzuen konpromisoa eta elkartasunagatik. Halaber, gure begirunea adierazi nahi diegu, eta besarkada bero bat bidali ere, urte hauetan maiteak galdu dituzuenei.

Azkenean, iristeko irrikan ginen unea hurbiltzen ari da. Festak ondoan ditugu, eta giroan sumatzen da, jada, agoizkoek dakigun moduan ospatzeko gogoa.

Aktibitate programa anitza osatzen ahalegindu gara, ahal dela, gehienen gustukoa izateko eta urteetan zehar izan den ospakizun falta hori konpentsatzeko. Azken bi urteetan asko izan dira gure egunerokotasunean modu batera edo bestera eragin diguten arazoak; bada, horiek alde batera utzi eta, parte hartzera eta ongi pasatzera gonbidatzen zaituztet. Berriz elkar gaitezen eta festak harmonian bizi eta goza ditzagun, errespetua eta berdintasuna ardatz. Jai osasuntsuen eta harmoniatsuen alde irmo egin behar dugu, jaiegun hauetan, urte osoan bezala, soilik BAIETZA dela BAIETZ kontuan hartuz eta defendatuz.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet jaiak errealitate egiteko era batera edo bestera laguntzen eta lan egiten duten pertsona eta talde guztiei. Merkatariak, ostalaritza, kultura-taldeak, udal-langileak..., zalantzarik gabe, zuei guztioi esker ditugu festarik onenak.

Eta azkenik, gure esker ona adierazi nahi diet, beste behin ere eta publikoki, bi urte hauetan laguntza eman duten pertsona guztiei, egoera zail eta ezezagun hartan musu-truk hainbeste emateagatik, beti prest egoteagatik. Eskerrik asko, bihotzez, urte hauetan izan duzuen erantzukizunagatik.

Gora Agoitz! Gora Agoizko Jaiak!

عيد سعيد

Sărbători Fericite

Ángel Martín Unzué Ayanz
*Agoizko Alkatea*

# sábado 13 larunbata













**11:15** Casa Consistorial. Recepción a las autoridades de la zona y colectivos socioculturales y entrega de premios del Concurso de Carteles. También, reconocimiento especial a: equipo Cadete del C.D Aoiz, Josetxo Paternain Nagore, Kiko Lako Itoiz, Leire Rípodas Cosín, Paula Huarte Cosín, Familia Zabalza-Garate, Aitziber Martxueta Luquin, Mikel Otano Urrizalqui, Ibai Barricart Paez, Iñaki Ardanaz Cabello y Leire Unzué Villanueva.

**12:00** Cohete anunciador de las Fiestas en honor a San Miguel. Lanzarán el chupinazo, Aspace Navarra, Casa Goiburu y el alcalde de Aoiz, Ángel Martín Unzué Ayanz. A continuación, pasacalles con la Comparsa de Gigantes y Cabezudos, Gaiteros de Aoiz, Milaur Agoizko Gaitari Taldea, Txaranga Iraunkorrak y Txistularis de Aoiz.

**17:00-20:00** Polideportivo. Parque infantil: hinchables, ludoteca con multijuegos, barredora y elementos de psicomotricidad.

**17:30** Prueba de zurracapotes con Txaranga Iraunkorrak. Salida desde el Ayuntamiento.

**20:00-21:30** Plaza Baja Navarra. Baile con Djs: Dj Asier Ojer y Dj Iñigo del Rosario de Atika FM. A continuación, Baile de la Era y bailables con Gaiteros de Aoiz y Txistularis de Aoiz. En el descanso, entrega de premios al mejor zurracapote y pancarta.

**22:15** Toricos de fuego, amenizados por Gaiteros de Aoiz y Txistularis de Aoiz. Salida: Casa Consistorial.

**24:00** Plaza del Mercado. Conciertos de rock: Kezkak, Dinamita y Dj Bull. Organiza: Agoizko Gazteak y Angiluerreka Elkartea.

**24:00-04:30** Plaza Baja Navarra. Bailables con Dj Asier Ojer y DJ Iñigo del Rosario de Atika FM.

**02:30** Desde el Ayuntamiento, pasacalles con Txaranga Iraunkorrak.

**11:15** Udaletxea. Harrera ekitaldia, eskualdeko agintariei eta herriko gizarte eta kultura elkarteei. Kartel Lehiaketako sarien banaketa. Horretaz gain, aitortza berezia: Agoizko K.E. Kadete mailako taldea, Josetxo Paternain Nagore, Kiko Lako Itoiz, Leire Rípodas Cosín, Paula Huarte Cosín, Zabalza-Garate familia, Aitziber Martxueta Luquin, Mikel Otano Urrizalqui, Ibai Barricart Paez, Iñaki Ardanaz Cabello eta Leire Unzué Villanueva.

**12:00** Jaietako txupinazoa (San Migel ohorean). Jaurtitzaileak, Aspace Nafarroa, Goiburu Etxea eta Agoizko alkatea, Ángel Martín Unzué Ayanz. Ondoren, kalejira Erraldoi eta Buruhandien Konpartsarekin, Agoizko Gaitariekin, Milaur Agoizko Gaitari Taldearekin, Txaranga Iraunkorrak eta Agoizko txistulariekin.

**17:00-20:00** Polikiroldegia. Haurrentzako jolastokia: airezko gazteluak, jolas anitzeko ludoteka, ekortzeko makina eta psikomotrizitate elementuak

**17:30** Zurrakapoteen proba, Iraunkorrak Txarangarekin. Irteera, Udaletxetik.

**20:00-21:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia DJ Asier Ojer eta DJ iñigo del Rosario Atika FMren eskutik. Ondoren, Larraindantza eta dantzaldia Agoizko Gaitariekin eta Agoizko Txistulariekin. Atsedenaldian, zurrakapote eta pankarta hoberenen sari banaketa.

**22:15** Zezensuzkoak, Agoizko Gaitariekin eta Agoizko Txistulariekin. Irteera: Udaletxea.

**24:00** Merkatuko Plaza. Rock kontzertuak: Kezkak, Dinamita eta Dj Bull. Antolatzailea: Agoizko Gazteak eta Angiluerreka Elkartea.

**24:00-04:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia DJ Asier Ojer eta DJ iñigo del Rosario Atika FMren eskutik.

**02:30** Udaletxeatik abiatuta, kalejira, Iraunkorrak txarangarekin.

# domingo 14 igandea








**09:00** Dianas con Gaiteros de Aoiz y Txistularis de Aoiz.

**11:30** Procesión en honor a San Miguel, Patrono de la Villa, con la participación de la Banda de Música Mariano García, Milaur Agoizko Gaitari Taldea, Agoizko Dantzari Txiki Taldea y Comparsa de Gigantes y Cabezudos.

**12:00** Misa Solemne con la participación de la Coral San Miguel interpretando la Misa de la Vela de Mariano García, Comparsa de Gigantes y Cabezudos y Milaur Agoizko Gaitari Taldea.

**12:45** Pasacalles con la Comparsa de Gigantes y Cabezudos, Gaiteros de Aoiz, Milaur Agoizko Gaitari Taldea.

**13:00** Plaza de la Baja Navarra. Euskal Dantza con Agoizko Dantzari Taldea y reparto de chorizo, queso y vino. Pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak.

**17:00-20:00** Polideportivo. Parque infantil: hinchables, gran ludoteca, tragabolas y pista americana.

**18:00** Frontón Toki Eder. Partidos de pelota profesionales. Primer partido de exhibición de mano parejas, categoría femenina, con Iturriaga y Agirre vs Arrieta y Mugika. Segundo partido, mano parejas masculino, Laso y Elizegui vs Peña y Eskiroz. Venta anticipada de entradas.

**18:30-20:00** Pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak. Salida, Plaza del Mercado.

**20:00-21:30** Plaza de la Baja Navarra. Bailables con la orquesta K-FÉ. A continuación, Baile de la Era y bailables con Gaiteros de Aoiz y Txistularis de Aoiz.

**22:15** Parque Iturzarrea. Fuegos artificiales y toricos de fuego, amenizados por Gaiteros de Aoiz y Txistularis de Aoiz. Salida toricos: Iturzarrea.

**22:30** Plaza del Mercado. Los Pimientos (versiones de La Polla Records). Organiza: Angiluerreka.

**23:00-01:00** Parque Iturzarrea. Disco joven con Dj Asier Ojer.

**23:30-02:30** Plaza de la Baja Navarra. Bailables con la orquesta K-FÉ. A continuación, pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak.

**09:00** Dianak, Agoizko Gaitariekin eta Agoizko Txistulariekin.

**11:30** Prozesioa, San Migel herriko patroiaren ohorean. Bertan honakoek parte hartuko dute: Mariano García Musika Bandak, Milaur Agoizko Gaitari Taldeak, Dantzari Txikiek eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak.

**12:00** Meza. Bertan honakoek parte hartuko dute: San Migel abesbatzak, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak eta Milaur Agoizko Gaitari Taldeak. Mariano Garciaren Argizariaren Meza abestuko da.

**12:45** Ondoren, kalejira Erraldoi eta Buruhandien Konpartsarekin, Agoizko Gaitariekin, Milaur Agoizko Gaitari Taldearekin.

**13:00** Nafarroa Beherea plaza. Euskal dantzak, Agoizko Dantzariekin. Bitartean txorizoa, gazta eta ardoa banatuko da. Kalejira, Iraunkorrak Txarangarekin.

**17:00-20:00** Polikiroldegia. Haurrentzako jolastokia: airezko gazteluak, bola-irentzailea eta pista amerikarra.

**18:00** Toki Eder pilotalekua. Pilota partida profesionalak. Lehen partida, emakumeen arteko esku binakako partida-erakustaldia: Iturriaga eta Agirre vs Arrieta eta Mugika. Bigarren partida: gizonen arteko esku-binakakoa: Laso eta Elizegi vs Peña eta Eskiroz. Sarrerak aldez aurretik salgai.

**18:30-20:00** Kalejira Iraunkorrak Txarangarekin. Irteera, Merkatuko Plaza.

**20:00-21:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia, K-FÉ Orkestrarekin. Ondoren, Larraindantza eta dantzaldia Agoizko Gaitariekin eta Agoizko Txistulariekin.

**22:15** Iturzarrea. Su artifizialak eta Zezensuzkoak. Bitartean, Agoizko Gaitariek eta Agoizko Txistulariek joko dute. Zezentxoen irteera: Iturzarrea.

**22:30** Merkatuko plaza. Los Pimientos (La Polla Records-en bertsioak). Antolatzailea: Angiluerreka.

**23:00-01:00** Iturzarrea parkea. Disko gaztea, DJ Asier Ojer.

**23:30-02:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia, K-FÉ orkestrarekin. Ondoren, karrika-dantzak, Txaranga Iraunkorrak.

# lunes 15 astelehena

## *DÍA DE LA INFANCIA HAURREN EGUNA*











## Todas las barracas de feriantes a 1,5€ - Feriako barraka guztiak, 1,5€

**09:00** Dianas con los Gaiteros de Aoiz.

**11:15** Plaza del Ayuntamiento. Recepción al Ayuntamiento Txiki, imposición de pañuelico a los nacidos y nacidas en 2021.

**11:15** Pasacalles con la Comparsa de Gigantes y Cabezudos, Txantreako Erraldoien Konpartsa, Gaiteros de Aoiz y Milaur Agoizko Gaitari Taldea. Salida desde Iturzarrea.

**12:00** Cohete Txiki y ofrenda a la Virgen de la Misericordia con la participación de la Txaranga Iraunkorrak.

**12:30** Desde la Plaza de la Baja Navarra al parque Iturzarrea, el Ayuntamiento Txiki acompañado por la Comparsa de Gigantes y Cabezudos, Txantreako Erraldoien Konpartsa, Milaur Agoizko Gaitari Taldea y la Txaranga Iraunkorrak. Fiesta de la espuma.

**13:30** Agoitz Kantuz (canciones populares en euskera), que se iniciará desde la plaza Mendiburua.

**14:30** Parque Navarra. Paellada popular y sobremesa con la actuación de Aitor Legasa. En caso de lluvia se trasladará al frontón Toki Eder.

**18:00-19:30** Vaquillas amenizadas por Txaranga Iraunkorrak. Al finalizar, encierricos de toricos de cartón.

**19:30** Desfile de los y las participantes del concurso infantil de disfraces caseros desde la Plaza Mendiburua hasta la Plaza Baja Navarra. El desfile estará amenizado por la Txaranga Iraunkorrak.

**20:00-22:30** Plaza del Mercado. Bailables Dj Cherry Bomb.

**20:00-21:30** Plaza de la Baja Navarra. Bailables con la orquesta Kresala y concurso infantil de disfraces caseros. Al finalizar, entrega de premios y Baile de la Era y bailables con Gaiteros de Aoiz.

**22:15** Toricos de fuego, amenizados por Milaur Agoizko Gaitari Taldea. Salida: Casa Consistorial.

**23:00-01:00** Parque Iturzarrea. Disco Joven, Dj Asier Ojer.

**23:30-02:30** Plaza de la Baja Navarra. Bailables con la orquesta Kresala. Al finalizar, pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak.

**09:00** Dianak, Agoizko Gaitariekin.

**11:15** Udaletxea Plaza. Harrera Udal Txikiari, zapia ezartzea 2021. urtean jaiotako haurrei.

**11:15** Ondoren, kalejira Erraldoi eta Buruhandien Konpartsarekin, Txantreako Erraldoien Konpartsa, Agoizko Gaitariekin, Milaur Agoizko Gaitari Taldearekin. Irteera, Iturzarreatik.

**12:00** Txupinazo Txikia eta Errukiaren Ama Birjinarentzako eskaintza. Bertan Txaranga Iraunkorrak parte hartuko du.

**12:30** Nafarroa Beherea Plazatik Iturzarreko parkera, Udal Txikia abiatuko da, Milaur Agoizko Gaitari Taldeak, Erraldoi eta Buruhandiek, Txantreako Erraldoien Konpartsa eta Iraunkorrak Txarangak lagunduta. Bertan, aparraren jaia.

**13:30** Agoitz Kantuz (euskarazko kanta herrikoiak) kalejika, Mendiburua plazatik abiatuta.

**14:30** Nafarroako Parkea. Paella-jatea eta, bazkalondoan, Aitor Legasa. Euria eginez gero, Toki Eder pilotalekuan eginen da.

**18:00-19:30** Behiak. Bitartean, Iraunkorrak Txaranga. Bukatutakoan, entzierro txikia, kartoizko zezenekin.

**19:30** Haurrentzako etxeko mozorroen lehiaketaren desfilea Mendiburua Plazatik Nafarroa Beherea Plazara. Desfilearen bitartean Iraunkorrak Txaranga joko du.

**20:00-22:30** Merkatu Plaza. Dantzaldia DJ Cherry Bomb.

**20:00-21:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia, Kresala orkestrarekin. Haurrentzako etxeko mozorro lehiaketa. Bukatutakoan, sari banaketa eta Larraindantza eta dantzaldia Agoizko Gaitariekin.

**22:15** Zezensuzkoak. Bitartean, Milaur Gaitari Taldeak joko du. Irteera: Udaletxetik.

**23:00-01:00** Iturzarrea parkea. Disko gaztea, Dj Asier Ojer.

**23:30-02:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia, Kresala orkestrarekin. Ondoren, Iraunkorrak Txaranga.

martes 16 asteartea

## DÍA DE LA JUVENTUD
## GAZTERIAREN EGUNA













**09:00** Dianas con Gaiteros de Aoiz.

**11:45** Comparsa de Gigantes y Cabezudos acompañados por Milaur Agoizko Gaitari Taldea.

**12:00** Deporte Rural en la Plaza Baja Navarra.

**13:00** Pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak.

**13:00** Cofradía de la Costrada de Aoiz: entrega del Premio Costrada de Aoiz. Salón de plenos del Ayuntamiento.

**13:30** Triki-poteo con Agoizko Trikitilariak.

**15:00** Nuevo cubierto del Colegio San Miguel. Comida de la juventud. Organiza: Agoizko Gazteak.

**17:30** Concurso de Cócteles por los bares, con Elektrotxaranga. Organiza: Agoizko Gazteak.

**18:00-19:30** Vaquillas amenizadas por Gaiteros de Aoiz. Al finalizar, encierricos de toricos de cartón.

**20:00-21:30** Bailables con Los Tenampas. Al finalizar, Baile de la Era y bailables con Gaiteros de Aoiz.

**22:15** Toricos de fuego, amenizados por Gaiteros de Aoiz. Salida: Casa Consistorial.

**23:00-01:00** Parque Iturzarrea. Disco Joven con Asier Ojer.

**23:30-03:30** Plaza del Mercado. Gaupasa con Trikidantz (si llueve se hará en la Plaza Baja Navarra). Organiza: Agoizko Gazteak. Al finalizar, pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak.

**09:00** Dianak, Agoizko Gaitariekin.

**11:45** Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Milaur Agoizko Gaitari Taldearekin.

**12:00** Herri Kirolak Nafarroa Beherea plazan.

**13:00** Kalejira, Iraunkorrak Txarangarekin.

**13:00** Agoizko Kostradaren Kofradia. Agoizko Kostrada sariaren banaketa. Udaletxeko bilkura aretoan.

**13:30** Trikipoteoa Agoizko Trikitilariarekin.

**15:00** Ikastetxeko estalpe berrian. Gazteentzako bazkaria. Antolatzailea: Agoizko Gazteak.

**17:30** Koktel Txapelketa, tabernarik taberna Elektrotxarangarekin. Antolatzailea: Agoizko Gazteak.

**18:00-19:30** Behiak. Bitartean, Agoizko Gaitariek joko dute. Bukatutakoan, kartoizko zezentxoak.

**20:00-21:30** Dantzaldia, Los Tenampas-ekin. Bukatutakoan, Larraindantza eta dantzaldia Agoizko Gaitariekin.

**22:15** Zezensuzkoak. Irteera: Udaletxetik. Bitartean, Agoizko Gaitariek joko dute.

**23:00-01:00** Iturzarrea parkea. Disko gaztea, Asier Ojer-ekin.

**23:30-03:30** Merkatu Plaza. Gaupasa, Trikidantzekin, (euria egiten badu, Nafarroa Beherea Plazan eginen da). Antolatzailea: Agoizko Gazteak. Bukatutakoan, kalejira, Iraunkorrak Txaranga lagunduta.

# miércoles 17 asteazkena

## DÍA DE LAS PERSONAS MAYORES
## ADINEKOEN EGUNA













**09:00** Dianas con Milaur Agoizko Gaitari Taldea.

**11:00-14:00** Tren Txu-txu recorriendo el pueblo.

**12:00** Comparsa de Gigantes y Cabezudos acompañados por Milaur Agoizko Gaitari Taldea.

**12:00** Misa con ofrenda a San Miguel por parte de nuestras/os mayores amenizada por Grupo Vocal e Instrumental Bilaketa.

**13:00** Parque de Navarra. Aperitivo amenizado por la Txaranga Iraunkorrak y por Grupo Vocal e Instrumental Bilaketa.

**13:30** Visita de la Corporación a la Residencia Hermanitas de los Pobres de Maiquetía, acompañada de la Comparsa de Gigantes y Cabezudos, Milaur Agoizko Gaitari Taldea y Txaranga Iraunkorrak.

**14:00** Jardín de la Iglesia. Despedida de la Comparsa de Gigantes y Cabezudos.

**14:30** Comida de mayores y sobremesa con la actuación del dúo Maialen y Raúl.

**17:00-20:00** Tren Txu-txu recorriendo el pueblo.

**18:00-19:30** Vaquillas amenizadas por Milaur Agoizko Gaitari Taldea. Al finalizar, encierricos de toricos de cartón.

**19:00-20:00** Pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak. Salida, Plaza Mendiburua.

**20:00-21:30** Plaza de la Baja Navarra. Bailables con la orquesta Edelweiss. Al finalizar, Baile de la Era y bailables con Gaiteros de Aoiz.

**22:15** Toricos de fuego, amenizados por Gaiteros de Aoiz. Salida: Casa Consistorial. A continuación, Pobre de mí txiki saliendo desde la plaza Baja Navarra al Ayuntamiento acompañados por Txaranga Iraunkorrak.

**23:30-02:30** Plaza de la Baja Navarra. Bailables con la orquesta Edelweiss. Al finalizar, Pobre de mí y pasacalles con la Txaranga Iraunkorrak.

**09:00** Dianak, Milaur Gaitari Taldearekin.

**11:00-14:00** Txu-txu trena, herrian barna.

**12:00** Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Milaur Agoizko Gaitari Taldearekin.

**12:00** Meza. Adinekoek eskaintza egingo diote San Migeli, Bilaketa Ahots eta Instrumentu Taldeak lagunduta.

**13:00** Nafarroako Parkea. Aperitiboa, Iraunkorrak Txarangak eta Bilaketa Ahots eta Instrumentu Taldeak lagunduta.

**13:30** Udal korporazioaren bisitaldia Agoizko zaharren egoitzara. Korporazioarekin batera, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak, Milaur Agoizko Gaitarien Taldea eta Iraunkorrak Txaranga.

**14:00** Elizako belardia. Erraldoi eta Buruhandiei agur-egitea.

**14:30** Adinekoentzako bazkaria. Bazkalondoan, Maialen eta Raulen bikotearekin emanaldia.

**17:00-20:00** Txu-txu trena, herrian barna.

**18:00-19:30** Behiak. Bitartean, Milaur Agoizko Gaitari Taldea. Ondoren, kartoizko zenzentxoak.

**19:00-20:00** Kalejira Iraunkorrak Txarangarekin. Irteera, Mendiburua Plaza.

**20:00-21:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia, Edelweiss orkestrarekin. Bukatutakoan, Larraindantza eta dantzaldia Agoizko Gaitariekin.

**22:15** Zezensuzkoak. Irteera: Udaletxetik. Bitartean, Agoizko Gaitariek joko dute. Ondoren, Gaixoa Ni Txikia, Nafarroa Behereko plazatik Udaletxeraino abiatuko da Iraunkorrak Txaranga lagunduta.

**23:30-02:30** Nafarroa Beherea Plaza. Dantzaldia, Edelweissekin. Bukatutakoan, Gaixoa Ni eta kalejira, Iraunkorrak Txarangarekin.

# Un chupinazo a tres manos tras dos años sin fiestas

**El foro participativo del ámbito cultural Kulturgunea se encarga cada año de realizar las propuestas para lanzar el chupinazo de fiestas que luego se pone a elección de la ciudadanía para que sea esta quien tome la última decisión. En esta ocasión, sin embargo, ha acordado que sean las tres candidaturas quienes enciendan conjuntamente la mecha que dará inicio a estas más que esperadas fiestas de 2022. María Luisa Goiburu Oquiñena del comercio agoizko Goiburu, el miembro de Aspace Sebastián Uz Ferreiro y el alcalde de Aoiz Ángel Martín Unzué Ayanz, serán quienes se encarguen del lanzamiento. Un chupinazo a tres, tras dos años sin fiestas, y sobran razones para no prescindir de ninguna de estas candidaturas.**

El comercio Goiburu de Aoiz tenía prevista y ultimada la celebración de su bicentenario en la primavera del 2020. La tienda, fundada en 1820 por Nicolás Goiburu y Rita Orbaiz, ha estado siempre estrechamente ligada a la historia de Aoiz y ha ido evolucionando conforme al paso del tiempo: comenzó como cerería y chocolatería, fue también ultramarinos y tuvo bodega, huerta y hasta una sala de cine. Actualmente, María Luisa Goiburu y Marisa Aldaz Goiburu, miembros, respectivamente, de la cuarta y quinta generación de la saga familiar, venden textiles. Desde luego, son suficientes motivos para festejarlo. Pero, a las puertas de lo que iba a ser una celebración por todo lo alto, la ilusión se vio truncada por la irrupción de la pandemia del Covid. Una pandemia que ha azotado también a este tipo de negocios y que ha obligado a muchos a echar la persiana. En el caso de Goiburu, afortunadamente, no ha sido así, la ha superado y este año ha llegado nada menos que a los 202 años de antigüedad, hito que se ha conmemorado en el mes mayo con una serie actividades y que se complementará con una publicación que recogerá la historia de la tienda y que verá la luz antes de fin de año.

ASPACE Navarra cumplió 50 años el pasado año 2021. Fue creada en abril del 1971 por un grupo de padres y madres movidos por la inquietud de buscar oportunidades para sus hijos e hijas con parálisis cerebral y/o alteraciones similares. Su objetivo es mejorar la calidad de vida de estas personas y sus familias aportando soluciones, defendiendo sus derechos y facilitando la participación activa como ciudadanos y ciudadanas de pleno derecho. Ofrece programas y servicios de integración laboral y da empleo también a personas con otras discapacidades, principalmente en la comarca de Pamplona, si bien su intención es conseguir una mayor implantación en las zonas rurales. Atiende actualmente a 800 personas con discapacidad y a sus familias, y proporciona empleo a casi 500 personas, unas 70 de ellas en la planta Ecointegra de Aoiz, donde 9 de ellas son agoizkas y casi la treintena de la zona. En la misma trabaja desde hace ocho años el agoizko Sebastián Uz Ferreiro. Sebastián encarna la esencia de la asociación a la perfección, ya que su vida ha estado y está estrechamente ligada a ella. Es miembro de Aspace casi desde su fundación, cuando comenzó a trabajar en el primer local de la entidad, una bajera de Echavacoiz, contando tan solo con 7 años de edad.

Las fiestas de este año son, sin ninguna duda, las más ansiadas desde hace muchas décadas, ya que la Covid ha obligado a suspenderlas dos años consecutivos. La pandemia que todavía sufrimos ha dejado millones de víctimas y muchas




personas han tenido que enfrentarse la pérdida de sus seres queridos en amargas y anteriormente impensables condiciones. Ha supuesto un desafío sin precedentes a nivel mundial en lo social, lo político y lo económico; provocó el confinamiento de la población, una grave crisis tanto sanitaria como económica y un gran impacto en nuestro modo de vida. El sector sanitario ha debido hacerle frente en primera línea, dejando en el mismo un gran desgaste tanto físico, sicológico y estructural; y también ha golpeado duramente a otros, especialmente a la hostelería, comercio, turismo, educación y cultura. Nadie se ha librado de sus consecuencias: lo han sufrido niños/as, jóvenes, adultos/as y ancianos/as. En este tiempo ha sido necesario tomar decisiones muy difíciles, en un escenario incierto e imprevisible, que requerían la coordinación de muchas personas y la implicación de la población. Y esta situación ha tenido un calco idéntico en Aoiz. Por ello, dejado atrás lo más grave, Kulturgunea ha considerado necesario que todo lo vivido en la villa se refleje y personifique también a la hora de lanzar el cohete en la figura del alcalde, como representante de todo el pueblo de Aoiz.

Cada mano portará la mecha con un sentimiento diferente: María Luisa, con orgullo, satisfacción y agradeciendo las muestras de cariño del pueblo; Sebastián, con una gran ilusión, nervios también, y satisfecho por poder trabajar en su pueblo; y Ángel Martín, teniendo presente a todas y todos los agoizkos y agoizkas.

## Txupina hiru eskutara botako da, bi urtez festarik gabe egon ondoren

**Kulturgunea kultur arloko foro parte-hartzaileak egiten ohi ditu jaietako txupina botatzeko proposamenak, eta, ondoren, horiek herritarren eskura jartzen ditu, haiek azken hautua egin dezaten. Aurten, ordea, foroan egin diren hiru proposamenen artean hautatzeko aukerarik ez ematea erabaki du, eta, ondorioz, 2022ko jaiei hasiera emanen dien metxaren piztaileak honako hauek izanen dira: María Luisa Goiburu Oquiñena, Goiburu saltegikoa, Sebastian Uz Ferreiro Aspaceko kidea eta Angel Martin Unzue Ayanz Agoizko alkatea. Hirutarako txupinazoa izanen da, bada, bi urtez festarik gabe egon ondoren, eta hautagaitza horietako bat bera ere alde batera ez uzteko arrazoi aski eta sobera daude.**

Agoizko Goiburu saltokiak 2020ko udaberrian bigarren mendeurrenaren ospakizuna egiteko asmo zuen, eta horretarako dena prest zeukan. 1820an Nicolas Goiburuk eta Rita Orbaizek sortutako denda Agoizko historiari estuki lotua joan da, eta garaien arabera egokitu du bere jarduera: kandelategi eta txokolategi gisa hasi zen, janari-denda ere izan zen, eta upategia, baratza eta baita zinema-areto bat ere izan zituen. Gaur egun, Maria Luisa Goiburu eta Marisa Aldaz Goiburu familiako laugarren eta bosgarren belaunaldietako kideek ehunak saltzen dituzte. Ez zitzaien, noski, ospatzeko arrazoirik falta. Baina, ospakizun handia izanen zenaren atarian, Coviden pandemiak ilusio guztiak zapuztu zituen. Pandemiak gogor jo ditu ere mota horretako negozioak, eta askok ateak itxi behar izan dituzte. Goibururen kasuan, zorionez, ez da horrela izan, eta, aurten, 202 urte bete ditu. Urteurrena ospatzeko zenbait ekitaldi antolatu dira maiatzean zehar, eta urtea amaitu baino lehen argitaratuko da dendaren historia jasoko duen liburua.

ASPACE Nafarroak, berriz, 50 urte bete zituen 2021ean. 1971ko apirilean sortu zuen guraso talde batek, garun-paralisia eta/edo antzeko alterazioak zituzten seme-alabentzako aukerak bilatzeko kezkak bultzatuta. Pertsona horien eta beren familien bizi-kalitatea hobetzea du helburu, konponbideak emanez, haien eskubideak defendatuz eta eskubide osoko herritar gisa parte-hartze aktiboa erraztuz. Laneratzeko programak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, eta beste desgaitasun batzuk dituzten pertsonei lana ere ematen die, batez ere Iruñerrian, nahiz eta landa-eremuetan ere presentzia handiagoa izatea lortu nahi duen. Gaur egun, desgaitasuna duten 800 pertsona eta haien familiak artatzen ditu, eta ia 500 pertsonen lantokia da; horietako 70k Agoizko Ekointegra lantegian lan egiten dute, Agoizko 9k eta eskualdeko ia 30k hain zuzen ere. Bertan zortzi urte daramatza Agoizko Sebastian Uz Ferreirok. Sebastianek ezin hobe adierazten du elkartzearen izatea, izan ere, bere bizitza entitate horri estuki lotuta egon da eta dago: Aspaceko kidea da ia sortu zenetik, eta erakundearen lehen lokalean hasi lanean, Etxabakoitzeko etxabe batean, 7 urte besterik ez zituela.

Aurtengo jaiak dira, zalantzarik gabe, duela hamarkada askotatik gehien desiratutakoak, Covid-ek bi urtez jarraian bertan behera utzarazi baititu. Oraindik pairatzen ari garen pandemiak milioika biktima utzi ditu, eta pertsona askok agur eman behar izan diete maite zituzten senide edo lagunei egoera mingots eta ordurarte pentsaezin batean. Mundu osoan aurrekaririk




gabeko erronka izan da arlo sozialean, politikoan zein ekonomikoan; biztanleriaren etxeratzea eragin zuen, krisi sanitario eta ekonomiko larria eragin zuen eta gure bizimoduan eraldatu du. Osasunaren arloko profesionalek aurre egin behar izan diote lehen lerroan, eta horrek ahulezia fisiko, psikologiko eta estruktural handia utzi du; eta gogor kolpatu ditu beste sektore batzuk ere, bereziki ostalaritza, merkataritza, turismoa, hezkuntza eta kultura. Inor ez da libratu: haurrek, gazteek, helduek eta zaharrek ordaindu dute. Denbora horretan, erabaki zailak hartu behar izan dira, pertsona askoren koordinazioa eta biztanleriaren inplikazioa eskatzen zutenak, egoera zalantzazkoa eta aurreikusi ezinezkoa bazen ere. Eta gertaera hori bere horretan islatu da Agoitzen. Horrenbestez, larriena atzean utzita, Kulturguneak beharrezkotzat jo du herrian bizi izandako guztia balkoian presente egoeta suziria jaurtitzeko momentuan, eta alkatearen bidez egieta, agoizko guztien ordezkaria den aldetik.

Esku bakoitzak sentimendu ezberdin batekin piztuko du metxa: Maria Luisa, harrotasunez eta pozik, eta herriaren maitasun-adierazpenak eskertuz; Sebastian, ilusio handiz, urduri ere bai, eta pozik bere herrian lan egin ahal izateagatik; eta Angel Martin, agoizko guztiak gogoan izanik.

# alcalde txiki 2022

**Kimetz Romero Badiola** es nuestro alcalde txiki, y por tanto será el encargado de lanzar el cohete en el día del niño/a.

Es el pequeño de dos hermanos: Alaitz con 16 y él con 12, cumplidos recientemente en mayo. En septiembre comenzará su etapa en el nuevo IESO. Su madre y su padre, Judith e Iñaki, vinieron a quedarse en Aoiz hace ya muchos años y él no ha vivido en otro sitio que no sea su querido pueblo.

Buen estudiante y buen deportista, juega a balonmano y es un gran forofo del Athletic. Quiere pasar unas felices fiestas en compañía de su cuadrilla y familiares y cumplir bien con las funciones que la Corporación Txiki tiene asignadas a lo largo de las fiestas.

¡Buenos días a todas y a todos!

Mis compañeros y compañeras de clase han decidido que yo sea el alcalde txiki este año, pero tengo que decir que las palabras y propuestas que voy a comentar, las hemos debatido y decidido entre todos y todas.

Para nosotros y nosotras las fiestas de este año son especiales y extraordinarias ya que debido a la pandemia que se extendió por todo el mundo en 2019, no hemos podido disfrutar de ellas en estos dos últimos años.

Las fiestas de Aoiz son días para disfrutar y pasarlo bien. Las fiestas siempre se nos hacen cortas y se nos pasan a toda velocidad. Como somos jóvenes, siempre pensamos en divertirnos. Nos encantan las atracciones. En cuanto pensamos en el grillo y en los toros locos, en la churrería, en el tiro pichón, en la furgoneta de helados o en las camas elásticas, se dibuja una sonrisa en nuestras caras de manera automática.

No queremos dejar pasar esta oportunidad para realizar varias peticiones al ayuntamiento con las que pensamos que se puede mejorar nuestra vida en Aoiz. Hemos pensado que se podría arreglar el campo de fútbol de San Miguel, pintar carriles para ir en bicicleta de manera segura, colocar en la entrada de la localidad la señal azul contra la LGTBI fobia y que las placas solares se vayan extendiendo por el pueblo, para que Aoiz sea cada vez más sostenible.

Como contrapartida a estas solicitudes nosotros y nosotras también nos queremos comprometer con nuestro pueblo: queremos cuidar Aoiz, mantenerlo limpio. Queremos dar la bienvenida y prestar nuestra ayuda a los niños, niñas y jóvenes que acaban de llegar a Aoiz. Queremos generar un buen ambiente, y para ello es fundamental que nos respetemos entre todos y todas y que no haya ningún tipo de violencia.

Ahora solo nos queda desearos que disfrutéis tanto como lo vamos a hacer nosotros y nosotras.

Gora Agoitz! Gora Agoizko jaiak!

*Kimetz Romero Badiola*



# 2022ko alkate txikia

**Kimetz Romero Badiola** da gure alkate txikia, eta, beraz, jaietako haurraren egunean txupina botatzea egokitzen zaio.

Bi anaietako txikia da: Alaitz, 16 urtekoa, eta bera, 12koa, maiatzean bete berriak. Irailean hasiko da ikasten DBHI berrian. Ama eta aita, Judith eta Iñaki, duela urte asko etorri ziren Agoitzera, eta Kimetz bere herri maitean bizi izan da beti, beste inon ez.

Ikasle eta kirolari ona, eskubaloian jokatzen du, eta Athleticen zale amorratua da. Jai zoriontsuak igaro nahi ditu bere koadrilarekin eta senideekin, eta, aldi berean, ongi bete nahi ditu Udalbatza Txikiak jaietan dituen funtzioak.

Egun on guztioi!

Nire ikaskideek aurten alkate txikia izatea erabaki dute, baina esan behar dut, aipatuko ditudan hitzak eta proposamenak denon artean eztabaidatu eta erabaki ditugula.

Guretzat aurtengo jaiak bereziak eta apartak dira; izan ere, 2019an mundu osora zabaldu zen pandemia dela eta, ezin izan baitugu festaz gozatu azken bi urte hauetan.

Agoizko jaiak pozik egoteko eta dibertitzeko egunak dira. Jaiak beti motzak egiten zaizkigu eta ziztu bizian pasatzen dira.Gazteak garenez, beti ongi pasa nahi dugu. Atrakzioak maite ditugu. Kilker eta zezen eroak, txurro-denda, tirapitxoia, izozki-furgoneta edo ohe elastikoak burura datozkigunean, automatikoki, irribarre bat azaltzen da gure aurpegietan.

Dena den, ez dugu aukera hau pasatzen utziko, eta udalari hainbat eskaera egin nahi dizkiogu. Pentsatu dugu San Migel futbol-zelaia konpon daitekeela eta bizikletaz modu seguruan joateko, bide gorriak margotu daitezkeela. Herriko sarreran LGTBI fobiaren aurkako seinale urdina jartzea ongi legokeela, eta eguzki-plakak gero eta gehiago zabaltzea proposatzen dugu, Agoitz gero eta jasangarriagoa izateko.

Eskaera horien ordainetan, guk ere gure herriarekin konpromisoa hartu nahi dugu, hau da: Agoitz zaindu nahi dugu, garbi mantendu. Gure ongi etorria eta laguntza eskaini nahi diegu Agoitzera iritsi berri diren haur eta gazteei. Giro gozoa sortu nahi dugu eta horretarako funtsezkoa da, guztion artean errespetua izatea eta inolako indarkeriarik ez egotea.

Orain, guk egingo dugun bezainbeste goza dezazuen opa dizuegu.

Gora Agoitz! Gora Agoizko jaiak!

*Kimetz Romero Badiola*

## La corporación txiki
## *Udalbatza txikia*

Alcalde-Alkatea: Kimetz Romero Badiola

Concejales/as-Zinegotziak: Unai Lizoain Rota, Adur San Martín Fernández, Joel Romero García, Oier Clavería Ugalde, Nahiara Sola Irurita, Maika Lizoain Miguéliz, Ainhoa Esain Miguéliz, Aiora Larrea Sánchez, Leire Javier Segura, Oier Nicuesa Goldáraz

Suplentes-Ordezkoak: Unax Arcelus Ugalde, Iker Betelu Salicio, Julen Valdivia Petri, Xabier Mancebo Ureña

## ¿SABES CÓMO TE AFECTA EL ALCOHOL A LA CONDUCCIÓN?

La visión es menor, ves doble.
Las distancias se calculan mal.
Los reflejos disminuyen.
Te cuesta más reaccionar.
Pierdes el equilibrio, te vuelves torpe.
Estás más cansado/a.
Es más difícil mantener la atención.
No sientes el riesgo.
Se tienen sentimientos de impaciencia y agresividad.

**SI HAS BEBIDO, NO CONDUZCAS.**
**NO TE MONTES EN UN COCHE O MOTO SI QUIEN CONDUCE HA BEBIDO.**

**PARA EVITAR RIESGOS INNECESARIOS UTILIZA OTROS RECURSOS: AUTOBUSES, TAXIS, TURNOS CON LA CUADRILLA**

## PÁSATELO BIEN SIN PASARTE

## BADAKIZU NOLA ERAGITEN DUEN ALKOHOLAK GIDATZEN DUZUNEAN?

Ikusmena galtzen da, bikoiztua ikusten duzu.
Distantziak ez dira ongi kalkulatzen.
Erreflexuak galtzen dira.
Erreakzionatzeko gaitasuna gutxitzen da.
Oreka galtzen da eta trakets ibiltzen zara.
Nekatuagoa egoten zara.
Arreta mantentzea zailagoa egiten da.
Arriskua neurtzeko gaitasuna galtzen da.
Ezinegonean egoten zara eta oldarkorragoa bihurtzen zara.

**EDAN BADUZU, EZ GIDATU. EZ IGO EDAN DUEN BATEK GIDATZEN DUEN KOTXERA EDO MOTORRERA**

**BEHARREZKO EZ DIREN ARRISKUAK SAHIESTEKO ERABILI ITZAZU BESTE ERREKURTSO BATZUK: AUTOBUSAK, TAXIA, KOADRILAREKIN TXANDAK EGIN**

## ONGI PASA PASATU GABE

MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES IZAGA GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

JAIBUS • XIN-XOAN • VOY y VENGO
IZAGABUS

## POR UNAS FIESTAS EN IGUALDAD Y LIBRES DE AGRESIONES SEXISTAS
## BERDINTASUNEZKO ETA SEXU ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE
## ¡¡Solo el SÍ es SÍ!! - Soilik BAIETZA da BAIETZ!!

***Sexu erasorik pairatu baduzu:***

- *Ez garbitu eta ez kendu daramazun arropa. Eginez gero, erasotzailea identifikatzeko funtsezko frogak ezaba zenitzake.*
- *Konta iezaiozu konfiantzazko norbaiti eta laguntza eskatu.*
- *Deitu 112 SOS Nafarroa telefonora. Arreta emateko protokoloa aktibatuko da. EZ ZAUDE BAKARRIK!*

***Sexu erasoa ikusten baduzu:***

- *Gizonezkoa nahiz emakumezkoa izan, ez onartu eta har ezazu jarrera aktiboa.*
- *Joan erasotutako emakumearengana eta laguntza eman.*
- *Hartu jarrera: ikusten baduzu, ekin; ikusten baduzu, ez onartu; ikusten baduzu, saiatu ekiditen; ikusten baduzu, lagundu.*

**Si sufres una agresión sexual:**

- No te laves ni te cambies de ropa. Podrías eliminar pruebas esenciales para identificar a la persona agresora.
- Cuéntaselo a alguien de confianza y pide su ayuda.
- Llama al 112 SOS Navarra. Se activará el protocolo de atención. ¡NO ESTÁS SOLA!

**Si presencias una agresión sexual:**

- Seas hombre, o mujer, adopta una actitud activa de rechazo:
- Dirígete a la mujer agredida. Pregúntale si está bien, préstale tu ayuda.
- Posiciónate: Si lo ves actúa, si lo ves no lo permitas, si lo ves intenta evitarlo, si lo ves ayuda.

## TOLERANCIA 0 A LAS AGRESIONES SEXISTAS
## 0 TOLERANTZIA, SEXU ERASOEKIN

### *ONGI PASA PASATU GABE*

*Festetan ongi pasatzeko, ez da beharrezkoa edatea; baina… edatea erabakitzen baduzu… hona hemen arriskuak gutxitzeko zenbait jarraibide:*

- *Dibertitzera ateratzen bazara, eta ez bakarrik edatera, gehiago disfrutatuko duzu gauaz eta kontsumoa hobe kontrolatuko duzu.*
- *Edan aurretik jaten baduzu, urdailak eskertuko dizu eta biharamuna eramangarriagoa izanen da.*
- *Edari alkoholdunak eta ez-alkoholdunak txandakatzen joaten bazara, hurrengo egunean bestondo txikiagoa izanen duzu.*
- *Gogoratu alkohol gehiagok ez duela dibertsio gehiago esan nahi.*
- *Hurrengo egunean ongi jaten baduzu, ur ugari edaten eta sofatik mugitzen bazara, bestondoa motzagoa izanen da.*
- *Ez nahasi alkoholdun edariak, bestondoa areagotzen baitu.*

### PÁSALO BIEN SIN PASARTE

No es necesario beber para disfrutar de las fiestas pero… si decides beber... Aquí tienes algunas pautas para reducir riesgos:

- Si sales a divertirte y no solamente a beber, disfrutarás más de la noche y controlarás más tus consumos.
- Si comes antes de empezar a beber, tu estómago te lo agradecerá y la resaca será más llevadera.
- Alternando bebidas alcohólicas con no alcohólicas, tendrás menos resaca al día siguiente.
- Recuerda que más alcohol no tiene porque significar más diversión.
- Si al día siguiente comes bien, bebes abundante agua y te mueves del sofá, la resaca durará menos.
- Mezclar diferentes tipos de bebidas alcohólicas empeora la resaca.

## 12 viernes ostirala

**18:00**

### XXIII CROSS DE LA COSTRADA

- Inscripciones: www.herrikrosa.eus o en el Complejo Deportivo Kanpondoa hasta el 11 de agosto, y en el mismo día 12 antes de comenzar la carrera en la Plaza Baja Navarra.
- Hora comienzo txikis: 18:00.
- Hora comienzo categorías absolutas: 19:15.

**18:00**

### KOSTRADAREN XXIII. LASTERKETA

- Izen-emateak: www.herrikrosa.eus edo Kanpondoa Kirol Gunean, abuztuaren 11a arte. Egunean bertan, lasterketa hasi aurretik, Nafarroa Beherea Plazan.
- Hasiera, haurrentzat: 18:00etan.
- Hasiera, helduentzat: 19:15ean.

**23:00**

### CONCIERTOS DE ROCK. PLAZA DEL MERCADO

GRUPOS: IRATI 58, THE LIO, DJ DORIAN.

Organiza:
Agoizko Gazteak y Angiluerreka Elkartea.

**23:00**

### ROCK KONTZERTUAK. MERKATUKO PLAZAN

TALDEAK: IRATI 58, THE LIO, DJ DORIAN.

Antolatzailea:
Agoizko Gazteak eta Angiluerreka Elkartea.

### CONCURSOS Y PREMIOS:

- **Zurracapote:** 1er premio 150 € y 2° premio 100 € .
- **Pancartas adultos/as:** 1er premio, 150 €.
- **Infantil de disfraces caseros:** 1er y 2° premios a mejores disfraces individuales y colectivos por edades. Además, todas las personas participantes recibirán premios.







### LEHIAKETAK ETA SARIAK:

- **Zurrakapotea:** 1. saria, 150 €; eta 2. saria, 100 € .
- **Pankartak (helduak):** 1. saria, 150 €.
- **Haurrentzako etxean eginiko mozorroen lehiaketa:** 1. eta 2. sariak banakako eta taldeko mozorro onenei, adinaren arabera. Gainera, parte-hartzaile guztiek sariak jasoko dituzte.



## BANDO

El Alcalde del Ayuntamiento de Aoiz-Agoitz hace saber,

MEDIDAS PARA LA SUELTA DE VAQUILLAS:

La suelta de vaquillas es el acto más peligroso de nuestras fiestas. Por ello, las medidas que lo regulan han de ser cumplidas con la mejor voluntad y espíritu cívico.

### PROHIBICIONES

Queda prohibido maltratar el ganado con varas, palos y otros, así como introducir en el recorrido objetos que puedan entorpecer el desarrollo del espectáculo.

Únicamente se permite la participación de las personas mayores de 16 años.

Queda terminantemente prohibida la participación de personas que muestren aspecto de hallarse en estado de embriaguez, intoxicación por drogas o enajenación mental.

Ninguna persona está obligada a participar en la suelta de vaquillas. Dicha participación supone un riesgo que las personas se imponen libremente, por lo que el Ayuntamiento no se responsabiliza de las consecuencias de los accidentes que puedan sufrir.

## *BANDOA*

*Agoizko Udaleko alkateak jakinaraztera ematen ditu,*

*BEHIAK ASKATZEAREN BALDINTZAK:*

*Behiak askatzea gure jaietako ekitaldirik arriskutsuena da. Horregatik, hori arautzen dituen neurriak borondate onenarekin eta gizabide-tsuki bete behar dira.*

### *DEBEKUAK*

*Behiak askatzerakoan debekatuta dago abereak akuiluekin, makilekin eta beste objektu batzuekin jotzea, baita ikuskizuna oztopatu dezaketen objektuak sartzea ere.*

*Parte hartu ahalko dute soilik 16 urtetik gorakoek.*

*Parte hartzea debekaturik dauka mozkor, drogekin intoxikatuta edo ero dagoenak edo itxura hori duenak.*

*Inor ez dago beharturik jai hauetan behiekin antolatzen diren ekitaldietan parte hartzera. Partea hartzea norberak libreki hartzen duen arriskua da. Hortaz, Udalak ez du bere gain hartuko aipatu ekitaldietan sufritzen ahal diren ezbeharren ondorioen erantzukizunak.*

EL ALCALDE / ALKATEA Ángel Martín Unzué Ayanz
Aoiz, 1 de agosto de 2022 / Agoitz, 2022ko abuztuaren 1a.